




**Pil-pilean**

Soraluzeko hilabetekaria  
2019ko abendua · 359 alea

TOKIKOM

# 1978KO ESPEDIZIOA **SORALUZETIK HIMALAIARA**





## PIL-PILEAN 359

2019ko abendua

Azaleko argazkia:

Agustin Txurruka

## Aurkibidea

- |    |                                                                     |    |                                                                   |
|----|---------------------------------------------------------------------|----|-------------------------------------------------------------------|
| 4  | <b>Bote prontuan</b> Arantxi Plazaola                               |    |                                                                   |
| 6  | <b>Begira</b> Blues jaialdia                                        | 3  | <b>IRITZIA</b>                                                    |
| 8  | <b>Zer berri</b> Aktualitateko albisteak                            |    | <b>Neuretik</b> Nerea Isasti<br><i>Zikinkeria eta bandalismoa</i> |
| 14 | <b>Argazki bidez</b> Aspaldiko argazkiak                            | 16 | <b>Gutunak</b> Euskara ikastea ez da<br>garestia Soraluzen        |
| 18 | <b>Erreportajea</b> Himalayara<br>espedizioa                        | 16 | <b>Hausnarketa</b> Eguneroko koinatzen<br>duzu?                   |
| 24 | <b>Kirola</b> Joxe Mariri omenaldia                                 | 17 | <b>Zir(r)ika</b> P.G. <i>Tenplu zahar eta<br/>berriak</i>         |
| 26 | <b>Kultura</b> Errazuren margolana                                  | 17 | <b>Puntua</b> Arianne Unamuno<br><i>Izoztutako sumendia</i>       |
| 27 | <b>Nondik nora</b> Martin Bernedo<br>Prado                          |    |                                                                   |
| 28 | <b>Sakonean</b> 'Bueltan' dokumentala                               |    |                                                                   |
| 30 | <b>Zerbitzuak</b> Zorion-agurrak,<br>oroitzak, iragarki laburrak... |    |                                                                   |



**Pil-pilean herri  
komunikabidea**

**TOKIKOM**

### Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen  
Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

### Erredakzioa

Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

### Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus

### Zuzentzailea

Miren Gallastegi

### Diseinua

Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

### Maketazioa

Oier Larreategi

### Inprimategia:

Gertu Koop.

### Banaketa:

Pil-pilean Ekoizpena

### Lege Gordailua:

SS-537-2000

### Tirada:

2.100 ale

### Babesleak

**GOKI**  
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZKO  
UDALA**

# Zikinkeria eta bandalismoa



NEREA ISASTI

**P**asa den astean, Atxurin jarri berri zegoen ispilua apurtu zuten. Ipini orduko, batek baino gehiagok bere buruari galdetu zion zenbat iraungo ote zuen.

Aurretik, kiroldegi gaineko oholtzako taulak apurtu zituzten, baita ikastetxeetan pintadak egin ere.

Noizbait, norbaitek zenbait autoren gurpilak zulatu ditu.

Jaietako karpa bat apurtu egin zuten behin.

Bidegorrian, bizikletentzat jarritako kit-a ere izorratu zuten.

Mendigainean, motordun ibilgailuak debekatzen dituen seinalea bere tokitik atera, txakurren kaka ez jaso, zaborra zabor ontzietan bota beharrean lurrean utzi, Galipoteko igogailua komun gisa erabili, eta abar luze bat.

Zikinkeria eta bandalismoarena ez da Soraluzen soilik gertatzen den zerbait, gure inguruko herrietan ere ibiltzen dira batzuk inguruak zapuzten, baita beste lurralde askotan ere. Baina guk geurea konpondu behar dugu.

Nola? Hori da galdera. Neurriak hartuz. Baina, zer neurri? Kamarak ipini? Zaintza lanak egin? Poliziaren presentzia areagotu?

Agian.

Badago ordenantza zibiko bat, baina ez badira bandaloak 'in fraganti' harrapatzen, ezerezean geratzen da.

Bestalde, 'puskatutako leihoen teoria' aipatu beharra dago. Puskatutako leihoen teoria ikerketa kriminologiko baten emaitza da, non bandalismoari aurre egiteko hipotesiak eta irtenbideak aurkezten diren. Ikerketa honen arabera, bandalismoa ez da burutzen giza kontestuaaren arabera soilik, baizik eta utzikeria irudi batzuk helarazten dutenaren arabera ere. Puskatutako leiho bat ikustean, ondokoa apurtzeko bulkada sentitzen dute norbanako batzuk. 'Besteek ere egiten dute, beraz, zergatik ez nik?'

Dena den, edukazio eza da arazoa. Eta honen aurka, edukazio kanpainak jarri behar ditugu martxan. Lehendabizi, etxean. Eta ondoren, eskolan. Guztion artean, familien inplikazioarekin. Errespetua sustatuz. Herria guztion artean zainduz. Ez dezagun beste alde batera begiratu. Ez dezagun ekintza txar bat normaltzat hartu.

**EDUKAZIO EZA DA  
ARAZOA, BERAZ,  
EDUKAZIO KANPAINAK  
JARRI BEHAR DITUGU  
MARTXAN**

# “Urte asko dira erbestean eta kartzelan”

ARANTXI PLAZAOLA ETXANIZ (SEBAS ETXANIZ PRESO ELGOIBARTARRAREN EMAZTEA)

---

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO

**ARGAZKIA:** FERNAN OREGI

---

Arantxi Plazaolak 68 urte ditu, Sebas Etxanizek 76. 1976an ezagutu zuten elkar eta harrezkero bikote dira. Sebas ETA-ko kide izan zen eta, ondorioz, erbestera ihes eginda eman zituzten urte asko: 1988tik 1993ra bitartean Nikaraguan bizi izan ziren eta 1997tik 2002ra bitartean Venezuelan. Urte hartan Sebas Espainiara estraditatu zuten, eta harrezkero preso dago. Azken bederatzi urteak Asturiasko Villabona espetxean. Orain arte, guztira, 19 urte egin ditu preso eta Arantxi hilero joan da senarra bisitatzerara.

Sebas Etxaniz 1992an atxilotu zuten, Bizkaia komandoko kide izatea egotzita, eta 80. hamarkadan hainbat Guardia Zibil eta Poliziaren hilketetan parte hartzea leporatuta zigortu zuten. Gaur egun adinez nagusiena den euskal preso da. Horregatik, eta bigarren graduari dagoelako eta dagoeneko beteak dituelako zigorraren hiru laurdenak, Sare gizarte mugimenduak behin baino gehiagotan eskatu du legedia arrunta aplikatu eta dagozkion onurak ezar dakizkion. Hainbat instituzio publikok ere egin dituzte antzeko eskariak (Gipuzkoako Aldundiak, Soralarazeko eta Elgoibarko Udalek). Hala ere, kartzeletako zuzendaritzak ez dio kalera ateratzeko baimenik eman. Aldaketarik ezean, kartzelan jarraitu beharko du 2024ra arte. **Urteotan zenbat kartzela ezagutu dituzu?** Hiru. Soto del real (Madrid), Valdemoro (Madrid), Villena (Alicante) eta Villabona (Asturias). Denetan gogorrena Alicantekoa. **Zergatik?** Funtzionarioak oso gogorrak direlako, gorroto handia digute. Zakurrak bezela tratatu izan gaituzte, egoera humiliagarriak biziraziz. Asturiasko funtzionarioak lasaigoak dira, baina hala ere, orain moduluz aldatu dituzte. Lehen hirurogeita bost preso zeuden eta orain ehun eta hogeita hamar. Pentsa!

**Hilero joaten zara bisitan?** Bai. Nik aurrez aurreko bisita izaten dut (bis a bisa) hilero eta lagunak astero joaten dira.

**Nolakoak izaten dira bidaiak?** Alicanten, esaterako, gau guztia furgonetan eman eta gero han arratsaldeko zazpiretan jartzen zizkiguten bisitak.

**Telefono deiak ere izaten dituzu?** Bai, astean bost. Zortzi minutukoa bakoitza.

**Egoera honetan zer egiten zaizu neketsuen?** Hainbeste gauza dira... Etxera joan eta bakardadea sentitzea, lagunak eta familia ikustea euren bizimodua egiten... Urte asko dira erbestean eta kartzelan eta dagoeneko biok goaz adinean gora. Noizbait izango dugu berriz elkarrekin bizi izateko aukera?

**Hala ere, beti umoretsu azaltzen zara.** Bai, kalean bai, neu izakeraz halakoxea naizelako baina negar asko egin dut. Eskerrak laguntza handia daukadan...

**Jendearen babesa sentitzen duzu?** Bai, lagunak eta familiaren babesak asko laguntzen dit. Eskerrak eman beharrean nago.

**Mobilizazio asko egin dira adineko presoak aske lagatzeko eskatuz. Pentsatzen duzu lortuko delabaldintzak arintzea?** Ez. Ez nik eta ez berak. Asko aldatu beharko du egoerak. Orain bigarren graduari dago, zigorraren hiru laurdenak beteta, hirurogeita hamasei urte, eskaera guztiak bideratu ditu baina hala ere, ez diote ematen ateratzeko baimenik. Zuzenena litzateke Zaballara ekartzea eta beste bide bat hastea baina...

**Agintariekin diote autokritika egiteak lagunduko lukeela.** Presoek onartu zuten mina eragin zutela eta etorkizunean beste bide bat jorratzea, baina horrek ere ez du balio izan. Beti eskatzen diete gehiago. Aitzakiak dira. Zigor handiak ari dira betetzen. Baina orain zergatik ez zaie aplikatzen legedia arrunta?





## Blues giroa berriz herrian

**ARGAZKIA:** FERNAN OREGI

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO

Joan zen asteburuan, aspaldiko partez, blues eta soul doinuak entzun genituen berriz herrian. Doinuekin batera, giro berezia ere sortu zen Blues Hotsak jaialdiko emanaldietan, musikari handiek eta mimoz landutako formatuek bakarrik sortu ohi duten horietakoa. Barikuan, Shirley Davisek zeharo txundituta laga zituen antzokira batu ziren musikazaleak; zapatuan, 25 urteren ostean, The Allnighthers taldeak berriz lehertu zuen giroa Zentroan; eta domekan, Ion Gurrutxagak eta Urbil Artolak, eguerdiko eguzki epeletan, emanaldi gozagarria eskaini zuten zubian. Errepikatzeko modukoa? Bai, dudarik barik. Bai jaialdia eta bai konbinazioa: Errabal kultur taldeak antolatu, Udalak lagundu eta musikazaleek gozatu.







# Interneteko iruzurrak gora

## GAUR EGUN BADAUDE TXARTEL BEREZIAK, INTERNETEN EROSKETAK SEGURUAGO EGITEKO

Urtetik urtera nabarmen egin dute gora Internet bidez egindako iruzurrek; aurten 17 soraluzetarrek salaketa aurkeztu dute Ertzaintzan, batera edo bestera engainuren bat jasan izanagatik

Aurten, Debabarrenean, Internet bidezko iruzurrekin lotutako 223 salaketa aurkeztu dira Ertzaintzan. Horietatik 17 salaketa soraluzetarrek aurkeztu dituzte.

Bestela esanda, Interneteko engainuekin lotuta, 250 biztanleko salaketa bat izan da Soraluzen. "Eskualdearekin alderatuta, Eibarrek batez besteko bera dauka; Ermuan, berriaz, salaketa bat dago 350 biztanleko eta Elgoibarren salaketa bat 500 biztanleko", esplikatu du David Mekolalde, Deba-Urola polizia-etxeko hurbiltzaileak.

Hark esandakoaren arabera, gaur gaurkoz, egiten diren delitu guztien laurdena Internet bidez egiten da. Izan ere, mota horretako delituak ugartzen doazela antzeman dute.

### Asko dago gure esku

Azken batean, erosketak egiteko gero eta gehiago jotzen da Internetera, baina, adituen arabera, sarri arreta gutxiarekin jokatzeko joera dago.

"Zalantzarik gabe, Internet bidez egindako delituak gero eta gehiago dira. Egia esan, gure esku dago Interneten erabilera zentzuzkoagoa egitea, kontuz ibiltzea eta gure datuak Interneten errazegi ez sartzea



Txartelak.

edo errazegi ez erabiltzea" adierazi du Mekolalde ertzainak.

### Dirua bueltatzen dute

Kutxabankeko Soraluzeko bulegoko arduradun Amaia Gantxegik baieztatu du mota horretako erreklamazioek gora egin dutela eta, normalean, iruzur bitartez egindako karguak bueltatu egiten

## INTERNET BIDEZ EGITEN DIREN DELITUAK DIRA DELITU GUZTIEN ARTETIK LAURDENA

zaizkiola bezeroari. Hark esplikatu du, halako kasuetan, behin salaketa ipinita, banketxeak txartelen enpresekin harremanetan jartzen direla, bezeroak salatutako karguaren justifikaziorik badagoen egiazta dezaten. Eta horrelakorik ez bada, bezeroari dirua bueltatu egiten zaio.

Halaber, Gantxegik gogora ekarri du badaudela txartel bereziak Interneten erosketak seguruago egiteko: "Txartel birtualak, esate baterako. Halakoak zenbateko jakin bateraino mugatuta aktibatzen dira, eta iraungitze data aldeztu aurretik zehaztuta. Horrela, benetako txartelaren datuak ez dira agerian egongo. Badaude opari txartelak ere; mota horretako txarteletan diru kopuru jakin bat sartzen da".

### Salaketak 2019

2019an Debabarrenean aurkeztutako salaketak, udalerriz udalerriz.

- Deba 10
- Mutriku 5
- Mendaro 8
- Elgoibar 23
- Eibar 109
- Ermua 44
- Mallabia 7
- Soraluze 17
- Debabarrena 223



# "Datuak errazegi ematen ditugu"

**DAVID MEKOLALDE** DEBA-UROLA  
POLIZIA-ETXEKO HURBILTZAILEA

David Mekolalde ertzainak Internet bidez egindako iruzurak nabarmen areagotu direla ohartarazi du **Zelako iruzurak egiten dira Internet bidez?**

Baimenik gabeko karguak, kreditu eta debitu-txarteletan egindakoak...edo salerosketetan, erositako zerbait ez zaigula iristen. Eta kasu gutxi batzuetan, *phishing*-a; hau da, norberaren lekua hartzea, datu pertsonalak, klabreak... bereganatuz.

**Zelako kopuruak ghitzen dira karguetan?**

Normalean txikiak, baina asko, bata bestearen atzetik egiten dizkizute. Antzeman ezean, kopurua handitzen joaten da. Batzuetan egoten dira 1.100, 1.500 euroko karguak, baita 10.000, 15.000 euroko karguak ere; baina halakoak noizean behin gertatzen dira. Horiek izaten dira iruzur handiak.

**Soraluzetarrek ipinitako salaketetan gertatu al da kargu pilaketarik?**

Bai, normalean 50-70 euroko karguak kendu izan dituzte, guztira 250-300 euro kendu arte. Kasu batean, 15 egunean ia 30 kargu egin zizkioten soraluzetar bati, 300 euro pasa kendu arte. Bakanen bati saiatu dira kopuru handiagoa kentzen.

**Zer egin behar da halako kasuetan?**

Banketxera abisatu txartela indargabetzeko eta salaketa ipini.

**Halako delituak argitzea lortzen da?**



David Mekolalde polizia-etxeako bulegoan.

Nekeza bada ere, asko argitzen dira. Gehienetan egileak atzerrian daude edo ezin dira lokalizatu.

**Zergatik igo dira horrenbeste halako delituak?**

Azken batean, gaur egun, askotan erabiltzen dugu Internet erosketak egiteko eta ez dugu ipini beharko genukeen besteko arreta ipintzen.

**Ez, ezta?**

Ez. Datuak edozein webgunetan eta errazegi ematen ditugu. Arreta jarri beharko genuke webgune seguruak erabiltzeko, banketxeekin operazioak egiterakoan, wifi publikoak erabili beharrean, konfiantzazko lekuak erabiltzeko.

**Zela adierazten dira konfiantzazko lekuak?**

Nabigatzailearen URL-an https (segurtasuneko s) azaldu behar

INTERNETEN EZ DUGU  
IPINTZEN IPINI BEHARKO  
GENUKEEN BESTEKO  
ARRETA

da, eta kandaduaren ikurra itxita agertu behar da. Bestalde, webguneetan ikusten badugu kalitate txikiko logotipoak daudela, horrek mesfidantza eragin behar digu.

**Wifi publiko batzuk, baina, erakundeenak dira, eta badituzte segurtasun zantzuak...**

Bai, baina askotan ez dakigu wifi publikoaren bitartez pasatzen diren datuen kudeaketa zein den, eta gerta liteke egotea pertsonaren bat, hackerren bat, asmo txarrekin, wifi horren bitartez pasatzen diren datuak bereganatzeko. Badaude horretarako erremintak.

**Txartelaren erabilerari dagokionez...**

Badaude segurtasun neurriak eta alternatibak. Txartela fisikoki erabiltzen badugu, ez dugu begi bistatik galdu behar, eta egiten diguten kargua kontrolatu behar da. Interneten erabili behar badugu, berriz, badaude beste aukera batzuk: txartel birtualak, aurretik kargatzekoak...

# 4.717.735 euro aurrekontuan

Udalbatzarrek atzo, eguena, onartu zuen 2020. urterako udal aurrekontua; Udal Gobernua osatzen duten EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin eta EH Bilduren kontrako botoekin onartu zuten

Atzo, eguena, 20 puntuko gai zerrenda landu zuten udal ordezkariak. 13 puntu aho batez onartu zituzten eta bakarrean bozkatu zuen oposizioa EH Bilduk kontra: 2020rako udal aurrekontu proposamenean.

Unai Larreategi bozeramaileak esplikatzen zuen kontra bozkatu dutela urteak daramatzatela "Udalaren egoera sozioekonomikoarekin kezkatuta"; eta uste dute "Udal Gobernuak egiten diharduen kudeaketa ekonomikoa aldatzen ez bada, herri honek beharrezko dituen inbertsioak ezingo direla aurrera eraman". Edozelan ere, Larreategi gaineratu zuen ezezeko hori ez dela inportantea;



Udalbatzarra.

atzoko plenoa "soraluzetarrei etorkizun hobe bat eskaintzeko inflexio puntua izatea nahi

dugu"; eta eskua luzatu zion Udal Gobernuari gai estrategikoetan elkarlanean jarduteko.

## Likidazioko soberakina

Iker Aldazabal alkateak erantzun zion, besteak beste, gertu daudela elkarlanerako, eta gonbita egin zion, apirilean, 2019ko likidazioko soberakina zertan erabili guztien artean adosteko. Hala, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zen 4.717.735 euroko udal aurrekontua, iazkoa baino %1,78 handiagoa. Eta inbertsio nabarmenenak aipatu zituen (beheko taulan lehen bostak).

## Egoitzako langileen mozioa

Udal aurrekontuaz gain, Mesedeetako Amaren egoitzako langileen ordezkariak aurkeztutako mozioa ere onartu zuten (beheko taulan eskariak). EH Bilduk alde bozkatu zuen, EAJko Abel Olaizolak ere bai. EAJ eta PSE-EE, berriz, abstenitu egin ziren. Azken biek azaldu zuten gatazka lehenbailehen konpontzea nahi duten arren, irtenbidea ez dagoela Soraluzeko Udalaren esku.

## ELAren mozioan hiru eskari egin zituzten

Egoitzako langileen ordezkariak hau eskatu zuten: 1. borrokarekiko elkartasun adierazpena; 2. Gipuzkoako Foru Aldundia interpelatzeko gatazka laboral eta sozial hori konpontzeko ardura har dezan; 3- Aldundiari Soraluzeko egoitzan eman gabeko zerbitzuaren zati proportzionala egoiliarren senideei itzulzeko eskatzea.



Egoitzako langileak.

## Inbertsioak

2020ko inbertsio nagusiak:

- 86.648 € eskolako patioarako eskailera zaharberritzeko.
- 40.000 € haur parkeak berritzeko.
- 35.000 € landa garapenerako.
- 27.000 € gimnasioko makinatarako.
- 23.000 € Dolmenen Ibilbiderako.

# Siriarrendako musika tresnak

Soraluzeko Musika Eskolak kanpaina abiarazi du musika instrumentuak eta haiendako osagarriak biltzeko

Soraluzeko Musika Eskolak dei egin du norbaitek etxean musika tresna zaharren bat edo erabiltzen ez duenen bat izanez gero, musika eskolara eramateko. Izan ere, instrumentuak zein haiendako osagarriak (aho-piezak, atrilak, zorroak, uhalak...) biltzen dabilta, Siriako musika eskoletara eta errefuxiatuen kanpalekuetara bidaltzeko.

Astelehenetan (11:30-19:30), martitzenetan (17:00-19:00), eguaztenetan (10:30-19:30) eta



Nagore Sanz zuzendaria kartelarekin.

barikutan (10:30-13:00) eraman daiteke materiala musika eskolara.

Hori bai, datozen asteotan itxita izango da eskola, Gabonetako oporrengatik. Beraz, urtarrilaren 7tik aurrera eraman beharko dira musika tresnak.

## Mugarik Gabeko Musikariak

Hainbat astez ibiliko dira musika tresnak batzen. Behin kanpaina bukatuta, gobernuz kanpoko Mugarik Gabeko Musikariak erakundeari bidaliko diote materiala, hark siriarrei helarazteko. Gobernu kanpoko erakunde horrek, besteak beste, Gasteizen du ordezkaritza. Iaz, adibidez, Kurdistanera bidali zituen musika tresnak, gerra eta haren ondorioak jasaten dabilztan umeendako.

# Greba orokorra prestatzen hasi dira

Hainbat sindikatuk eta eragilek deituta, urtarrilaren 30eko greba orokorra prestatzen hasi dira udalerrian

Atzo, eguena, batzarra egin zuten Elkartegian, hainbat sindikatuk eta eragilek deituta. Urtarrilaren 30eko greba orokorrari begira mugitzen hasi nahi dute udalerrian.

Lan-pentsio-bizitza duina leloa izango du greba orokor horrek. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak deitu du eta babes zabala eskuratu du dagoeneko. Besteak beste, LAB, ELA, ESK eta STEILAS sindikatuek,



Elkartegiko batzarra, atzo..

mugimendu feministak, pentsiodunen mugimenduek (Soraluzekoak tartean), mugimendu ekologistak, Gipuzkoako garbiketako langileek, Bizkaiko metaleko langileek eta bazterkeriaren aurkako plataformek babestu dute.

## Aldarrikapenak

Grebaren bitartez, besteak beste, honako aldarrikapenak egingo dituzte: 2011ko eta 2013ko erreformetan oinarritutako pentsio murrizketak indargabetzea; 1.080 euroko gutxieneko pentsioa; pentsio sistemaren finantzazioa bermatzea kotizazio sozialen eta zergen bidez eta Zapateroren eta Raxoiren lan-erreformak bertan behera uztea.



# "Bidegurutzetik ateratzeko unea da"

Euskara "bidegurutzetik ateratzeko unea" dela aldarrikatu zuten Euskararen Eguneko ekitaldian.



Euskaltzaleak Euskararen Eguneko ekitaldian. FERNAN OREGI.

Abenduaren 3an, 2020ko Euskaraldia aurkeztu zuten plazan eta horrekin batera, Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariak idatzitako manifestua irakurri zuten. Manifestuan nabarmendu zuten, "euskaraz bizitzeko jauzi kualitatiboak emateko unea" dela eta "herriz herri, auzoz auzo

euskaltzaleen mugimendua sortu eta indartu" beharra.

## Formazio saioa urtarrilean

Euskaraldia entitateetan zela aplikatuko den azaltzeko formazio saioa antolatu dute urtarrilaren 25erako (zapatua). Goizeko 10.30etik 12:30era egingo dute antzokian.

## Sarek kantari aldarrikatuko ditu presoek eskubideak abenduaren 31n

Sarek ezhoiko elkarretaratzea antolatu du urteko azken egunean euskal presoek eskubideak aldarrikatzeko. Herritarrak deitu ditu Abenduaren 31n, 19:30ean, Zubian elkartu, eta elkarrekin Ertzainak taldearen 564 kantua kantatzera. Zuzeneko musikarekin batera, kantuaren letra ere banatuko dute. .

## Autobusak urtarrileko manifestaziorako

Aurten ere Sarek autobusak antolatu ditu urtarrilaren 11n 'Orain presoak' lemapean Bilbon egingo den manifestaziora joateko Autobusak 11:00etan eta 15:30ean aterako dira eta izen-ematea zabalik dago Bolia eta Arrano tabernetan.

## Euskararen ginkana

Abenduaren 4an jokatu zuten Debabarreneko Euskararen Ginkanaren finala Eibarko Coliseo antzokian, eta bertan, Soraluzeko Soragarriak taldea gailendu zitzaien Debako eta Eibarko taldeei. Irabazleek 800 euroko saria eskuratu dute, ikasbidaian gastatzeko. Ginkana Kutxa Ekoguneak sortutako ekimena da.



Soraluzetarrak garaipena ospatzen.


## DanobatGroup-en lehiaketa

'Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia' lelopean Danobatgroup kooperatiba taldeak lehiaketa antolatu du Euskararen Eguna ospatzeko. Bertan, Maddi Mendibil elgoibartarra izan da irabazlea. Mendibilek Basque Culinary Center-en eskutik bi lagunentzako 360 graduko esperientzia gastronomikoa biziko du.


# GIPUZKOA

## Etorkizuna orain

Gipuzkoa etorkizuna da.  
Iritsi den etorkizuna.



GIPUZKOA  
ETORKIZUNA  
ORAIN



# Gogoratzen?

TESTUA UBANE MADERA

ARGAZKIAK: KONTRARGI ARGAZKILARI KOLEKTIBOA ETA MIKEL VALERO

Erakusketa gelan dagoen oraingo erakusketari izenburu ezin aproposagoa ipini diote: *Gogoratzen?/Recuerdas?* Izan ere, horixe berori esaten dute ikusleek, batetik bestera, erakusketako 30 argazkietatik begirada pasatzean. Adin jakin batetik aurrerakoek denbora-pasa ederra egiten dute aspaldiko kontu horiek elkarrekin partekatzen. Eta gazteek, berriz, jaioterria orain dela hamarkadatzko batzuk zelakoa zen ezagutzeko aukera dute.

Orain arte, bisitari ugari izan ditu Kontrargiren urte amaierako erakusketak. Gehiago ere izango ditu, abenduaren 28ra arte baitago hura ikusteko aukera. Akordatzan metro kuadrauaz?







GUTUNAK

Euskara ikastea ez da garestia Soraluzen

VERONICA GALARRAGA

UDALAREN HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
BATZORDEKO LEHENDAKARIA

Maribel López herritarrek aldizkari honen azken alean gutuna argitaratu zuen Soraluzen euskara ikasteko erraztasunik ez dagoela salatuz.

Lehenik eta behin, esatea nahiko nuke ez gatozela bat Maribelek egiten duen baieztapen horrekin. Ez da justua esatea Soraluzeko herritarrek euskara ikasteko zailtasunak dituztela, ez baita horrela.

Soraluzeko Udalak urte asko daramatza lanean euskara ikastea doakoa izan dadin eta esan dezakegu helburua ia-ia lortuta dagoela, gaur egun euskara ikastea doakoa delako herritar gehien-gehienentzat.

Aurtengo ikasturtean, esate baterako, 25 herritarrek eskatu dute euskara ikasteko laguntza eta horietatik 22k doan ikasiko dute, 3k bakarrik ordaindu beharko dutelarik zerbait, matrikularen erdia hain zuzen ere. Gehien ordainduko duen ikasleak 225 euro ordainduko ditu, ez 500, Maribelek bere gutunen salatzen duen bezala.

Esan bezala, inbertsio handia egiten du Soraluzeko Udalak herritarrek euskara ikasi ahal izan dezaten. Ikasturte honetan, adibidez 12.000 euro banatuko ditu udalak diru-laguntzetan. Modu horretara, euskaltegiko matrikula guztien kostuaren %96 Udalak asumituko du eta %4 besterik ez ikasleek.

Argitzea nahiko nuke, era berean, diru-laguntzak jasotzeko baldintzak berdinak direla herritar guztientzat. Ez da egia etorkinek doan ikasten dutela eta

bertain jaiotakoek ez. Laguntzak familia-unitatearen errenta-mailaren arabera ematen dira, ez herritarren jaiolekuaren arabera, eta errenta-mailarik altuena dutenek bakarrik ordaintzen dute zerbait.

Funtzionarioek ez daukatela ordaindu beharrik esaten du Maribelek beste pasarte batean. Bai, hori egia da, Jaurilaritzak ordaintzen du horien matrikula. Baina hori ez da funtzionarioekin bakarrik gertatzen. Enpresa batzuk ere modu berean jokatzeko dute beren langileekin, eta matrikula ordaindu egiten diete.

Eztabaidatu genezake zerbait ordaindu behar izan duten 3 horientzat ere doakoa izan behar den ala ez, agian bai; baina, Soraluzen, euskara ikasten ari diren ikasle ia denak,10etik 9, doan ari dira euskara ikasten.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Egunero kozinatzen duzu?

Datuek diote gero eta denbora gutxiago eskaintzen diogula etxean janaria prestatzeari. Herri handietan joera nabaria da baina hala al da herri txikietan ere? Herritarrei galdetu diegu.



AMAIA GOROSTIDI  
ERRETIRATUA

"Erretiratuta nago, eta etxean nagoenez, egindako janari gutxi erosten dugu. Ahalegina egin behar da osasuntsu elikatzeko. Hori bai, lapiko expresean egiten dut asko, eta denbora gutxi behar dut. Gazteek igual erosiko dituzte egindakoak, lanean antxintxika ibilitakoak gara denok".



JOSE INAZIO  
BERETXINAGA  
ERRETIRATUA

"Egunero kozinatzen dut etxean, bazkaria, afaria eta denak. Oso noizbehinka erosi izan dut egindakoa, baina ez zait gustatzen. Beste zapore bat izaten du. Harategiko tripakiak bai, baina bestela... Semeari beti esaten diot: etxean egindako jana apartekoa da, beti".

## ZIR(R)IKA

P.G. TENPLU ZAHAR ETA BERRIAK

## PUNTUA



ARIANNE UNAMUNO

## Sumendi izoztua

**B**at-batean, sumedia elurra jaurtitzen hasi zen. Zuritu zituen gaina eta magalak. Harrituta, irlako bizilagunak gertaera sinestezen hura ikustera gerturatu ziren. Hotzak hankak erretzen zizkiolarik, andrerik zaharrenak esan zuen: "Sumendiari bihotza izoztu zaio." Denak isildu ziren. Gizonen hanka luze gihartsuen artetik, neskatala bat agertu zen, sua eskutxoetan zuela. Elurraren gainean pausatu zituen suzko eskuak eta kantari hasi zen: "Bihotzeko sumendia, sumenditxua; nire maitasun sutsuari esker, berriz jaioko zaizu barnean sua." Ume, gazte, heldu, zaharrek, jarraitu zioten. Bakoitzak bere bihotzeko berotasunera eskuak gerturatuz, eskuetan sua egin eta sumendi izoztuari eskaini zizkion. Hala, milaka sutxo elurraren gainean ipiniz, tristura eta itxaropenezko erreka handi bat isuri zen. Denak uretan txipli-txaplaka eta kantuz ari ziren bitartean, sumenditxotik txinparta bat irten zen eta andre zaharrenaren gainera erori. Esan zuen: "Sumendiaren bihotza nekatuta dago, baina sua bueltatu diogu, bizitzaren sua." Txilioka, dantzan eta kantuan aritu ziren goizaldera arte. Nekeak jota elkarren gainean etzan zirenean, mendiaren atzetik eguzkia agertzen hasi zen une berean, suzko mendia esnatu egin zen eta bizitza isuri zien gainera.

ANDERE HERNANDEZ  
GAZTEA

"Egunero kozinatzen dut, baita umearendako ere. Ez dugu egindakorik erosten eta kozinatzeke ez dut robotik erabiltzen. Ni Gasteizkoa naiz, eta hiri eta herri handietan jende asko ibiltzen da janari bizkorreko jatetxeetan, baina hemen ez dago halakorik"

CONCHA SARDINO  
ERRETIRATUA

"Presaka nabilenean potera jotzen dut, baina dilistak, garbantzua, arroza, paella... halakoak nik kozinatzea dut gustuko, norbere gustuko generoekin egiten baitira. Erositakoek ez dute zapore bera. Hala ere, hori kontsumitzailearen gustuaren arabera da".





Agustin Txurruka, xerpa bat, Begoña, Txus, Javi Barrenetxea eta beste xerpa bat, Thorong La Pass lepoan, 5.416 metro altu dena.

# Soraluzetik Himalaiara joan zirenekoa

Himalaiak soraluzetarren lehen bisita jaso zuenetik 41 urte bete dira aurren. Birritan egin zioten bisita munduko gailurren magalari soraluzetarrek, Felipe Uriarte ezagunaren gidaritzapean. Gainera, Everesten ikurrina zabaldu zuen lehen euskaldunarekin elkartu ziren Everesteko oinarritzko kanpalekuan: Martin Zabaletarekin.

Testua: **Ubane Madera**. Argazkiak: **Agustin Txurruka**

1978a zen. Oñatiko Kale Zaharreko botikan hiru soraluzetar elkartu ziren: Agustin Txurruka (Soraluze, 1951), Javier Barrenetxea (Soraluze, 1949) eta Jose Ramon Izaga (Soraluze, 1949-1994; orduan Soraluzen zegoen medikuaren semea). Bata Aizkorriera mendi buelta egitera joanda zegoen; bigarrena botikaren ugazaba zen, eta hirugarrena azken horren arrimura bertaratuta zebilen.

Agustin Txurrukak ondo gogoan du hiru lagunen arteko hizketaldi hura eta haren ondorioak: "Egun hartan Jose Ramon Izagak esan zidan: *Felipe Uriarte Nepalera joateko taldea osatzeko jende bila dabil, nahi al duzu etorri?* Esan nion: *Mendian ibiltzeko bada bai, eskalatzeko bada, ez. Erantzun zidan: trekkinga egiteko da, eta horimendian ibiltzea da. Orduan baietz esan nion, nahiz eta joan baino lehen ez nekien ezta Nepal non zegoen ere*".

Eta halaxe, "anestesia barik" erabaki zuten Agustin Txurrukak eta Jose Ramon Izagak zer eta munduko gailurren magalera joango zirela, "mendi-buelta" egitera.

### Tximist Espedizioko gidariarekin

70eko hamarkadan ez zen batere ohikoa Himalaia mendilerroa joatea. Izan ere, XIX. mendeko zatirik handienean, europarrek debekaturik izan zuten Nepal, Sikklimen edo Tibetean sartzea.

1921. urtean zabaldu ziren Nepalgo herria eta Everest mendia mendebaldarrentzat, Dalai Lamak britaniarrei historiako lehen espedizioa antolatzeko baimena eman zien eta.

Hain justu, 70eko hamarkadaren amaieran, Felipe Uriartek (Pasai Donibane, 1944), Xabier Errok (1946-2018) eta beste mendizale batzuek antolatu zituzten Euskal Herritik (eta penintsula osotik) Himalaiara eta Andetara egin ziren lehen bidaia; izan ere, haiek Mendiak eta Herriak izeneko enpresa sortu berri zuten, trekkingak eta espedizioak antolatzeko.

### Birritan

Bada soraluzetarrak behin ez, birritan joan ziren Nepal ingurura 70eko hamarkada hartan. Lehenengo txandan Agustin Txurruka eta Jose Ramon Izaga; eta hurrengo urtean bertan Agustin Txurrukak esperientzia errepikatu zuen. Juan Rodriguez Juanillo (Soraluze, 1949-2018) eta Javier Barrenetxea ere animatu ziren abentura hartara.

Bigarren mendi ibilaldirako Xabier Erro nafarra izan behar zuten gidari oñatiarrek eta soraluzetarrek, baina hark istripua izan zuen eta Felipe Uriartek ordezkatu zuen.

Jose Ramon Izaga, Agustin Txurrukarekin lehen trekkingean joan zena.



## "12 KILO GALDU NITUEN ETA ALTURA GAIXOTASUNA IZAN NUEN LEHEN TREKKINGEAN"

## "HERRIXKETAN AZALTZEN GINENEAN BAZIRUDIEN ESTRALURTARRAK GINELA HAIENDAKO"

Poliziak trekkingeko partaideen paperak begitatzzen, chek pointean. Felipe Uriarte (eserita) da paperak erakusten dabilena eta poliziaren atzetik begira dagoena da Juanillo zena.



### Kanpin-denda barik

Kontuak kontu, soraluzetarrek, lehenengoz, 1978an egin zioten bisita Nepali. Urte hartako udako montzoiaren ondoren abiatu ziren Agustin Txurruka eta Jose Ramon Izaga Himalaiarantz, lehen trekkingera. 20 egun pasako ibilaldia egin zuten.

"Piriniotara eramaten genuen ekipoa eramateko esan zigun Felipe Uriartek, botak eta anorakak bai, onak, lo egiteko zakua ere bai, eta bestela, ekiporik minimoena. Txerto batzuk hartu genituen: sukar horia, kolera eta baztangaren kontrakoak. Lehen trekkinga egin genuen Everesteko oinarritzko kanpamendura, Khumbu bailarara. 12-15 bat lagun ginen: Plazentziakoak bi, Lazkaoko beste bat eta Madrildik etorri zen Espainiako Federazioko presidentea eta kataluniarren talde bat.

Lehen bidaian kanpin-denda barik joan ginen. 50-100 lagunetakoa herrixketan egiten genuen lo, bertakoen etxeetan. Gu azaltzean bazirudien estralurtarrak ginela haiendako, argindarrik ere ez zuten. Pentsa, gu joaten ginen, mendebaldeko gure mentalitatearekin, dendarengatik galdezka eta jateko chicken eskatzen; erlijioa aitzakia moduan ipinita, no chicken esaten ziguten beti! Izan ere, eurek janari gutxi zuten eta beldur ziren jaki barik geratzeko, halako talde handia elikatu behar bazuten. Oiloak ere ezkutatu egiten zituzten!" kontatu du barrez Txurrukak.

### Altura gaixotasuna, hezetasuna...

Bide luzea egin zuten lehen trekking hartan, guzti-guztia oinez: "Kalapatar mendiraino igo ginen, 5.643 metrora dago hura; baina Katmandutik bertatik hasi ginen oinez. Dumrerraino joan ginen lehenengo, arroz sororik soro 55 milia (88,53 kilometro) oinez eginez, eta handik gora segitu genuen gero. Behe aldean (arroz soroen inguruan) bero handia egiten zuen, izugarritzko hezetasuna, eta demaseko deshidratazioarekin ibili ginen. Nik 12 kilo kendu nituen, eta lehen trekkingean, gainera, alturarekin gaixotu egin nintzen: Kalapatar menditik beherantz egitean, belaunak doblatu eta lurrera jausi nintzen; ez neukan minik, baina demaseko

ahultasuna neukan. Izagak motxila hartu behar izan zidan eta berak lagundu zidan gertuen zegoen herriraino lehenengo (Lobuche) eta ospitaleraino gero (Pheriche herrira)", kontatu du Txurrukak.

### Poliziak dena kontrolatzen

Zailtasunez gain, ondo kontrolatuta ibili ziren Himalaiako mendietan; izan ere, derrigorrezkoa zen Nepalgo agintariei aldeztu aurretik jakinaraztea egingo zuten ibilbidea: "Trekking-baimenean adierazitako ibilbidetik ezin ginen irten. Inguru guztia



zegoen soldaduz kontrolatuta. Norbere kabuz beste ibilbide bat hartuz gero, demaseko isuna ezartzen zizuten. Adibidez, imajinatu Karakatetik Atxolineran bidean, erdian poliziak egongo balira, mahai baten bueltan eserita. Mahaioetan, idazki batzuren bitartez adierazten zuten hura zela *check point*-a. Halako batera iristean, sirderrak (xerpen buruzagiak) trekkingeko arduradunari deitu behar izaten zion (mister *Philip* esaten zioten Uriarteri) eta hura gure paper guztiekin joan behar izaten zen poliziengana, paperak erakustera”, kontatu du.

### **Kalapatar: Himalaiako balkoia**

Baina iritsi ziren Felipe Uriartek nahi zuen lekura: "Kalapatarrera eramán gintuen Ferlpe Uriartek. Hara joan nahi zuen, esaten zuelako huraxe zela lekuri onena Everest eta inguruko guztia ondo ikusteko, Kalapatar balkoi moduko bat baita. Khumbu bailaran dago, xerpen herrian, eta bertan daude munduko hamalau zortzimilako mendietatik lau", esplikatu du Agustin Txurrukak. Hark, Ama Dablam mendia du berezikiko gogoan. "Lamen

Thiangboche monasterioan egon ginen lo egiten, Ama Dablam mendiaren parean. Ikusgarria da mendi hura! Gainera sakratua da, Ama Dablamen gailurra ezin zen zapaldu; bertakoek esaten zuten han bizi zirela Jaungoikoen izpirituak. Hala, gailurrera iritsi aurretik gelditzeko eta buelta emateko eskatzen zieten espedizioei".

### **Leku zabal-zabalak**

Bada, ikusitako guztia barreneraino sartu zitzaion Agustin Txurrukari: "Zelako leku zabalak! Benetan zabalak! Aurrera begiratu, eta kilometroak eta kilometroak ikusten ziren; bazirudien mendiak bertan zeudela, baina bai zera! Lekutan zeuden! Horrez gain, Khali Gandaki ibaiaren ondotik egin genuen bueltako bidearen zatirik handiena, eta hura ere benetan ikusgarria izan zen, munduko depresiorik handiena baitago bertan: Annapurna eta Dhaulagiri mendiak 8.000 metrotik gorakoak dira eta haiek sortutako depresiotik, zulotik pasatu ginen".



Agustin Txurruka xerpa batekin, gosaltzen.



Begoña oñatiarra, Juan Rodriguez Juanillo, Javi Barrenetxea (zapi berdeduna), Pako iruindarra (zapi urdinduna) eta Agustin Txurruka.

Nepaldarrak eta euskaldunak dantzarietxaloka, bertako herrixka batean.

## ...Eta bigarren trekkinga etorri

Eta oroitzapen eder horiekin buruan, aukera izan bezain laster, Agustin Txurrukak errepikatu egin zuen esperientzia, hurrengo urtean bertan errepikatu ere.

1979ko hartan, Txurrukak lagun izan zituen Jabier Barrenetxea eta Juan Rodriguez Juanillo soraluzetarrak. "Oñatiarrek lehendik ezagutzen zuten Jabier Barrenetxea, Oñatin baitzuen botika. Felipe Uriartek Himalaiatik ekarritako argazkiak erakutsi zizkion hari, eta Barrenak esan zuen: gu ere bagoaz hurrengoan, eta Juanillo Plazentziako kuadrillakoa zenez, ba hark ere joan nahi zuela esan zuen. Elkartu ginen oñatiarrak eta plazentziarrak, eta etorri ziren Tolosako andre-gizon medikuak, donostiar batzuk, kataluniarrak... talde nahiko handia egin genuen".

## Ezagun askoak

Gainera, Himalaian euskaldunetz eta kataluniarrez osatutako beste talde batekin elkartu ziren. Talde hartako kide ziren Joxe Urbietak Takolo azpeitiarra eta Martin Zabaleta mendizale ezagunak.

Are gehiago, soraluzetarrek beste inork baino lehenago jakin

zuten Zabaletak eta konpainiak baimena eskuratu zutela Everestera bueltatzeko 1980an, historia egin zuen Tximist II. espedizioa egiteko (Tximist I. espedizioa 1974an egin zuten, eta Everesten gailurretik 320 metrora gelditu ziren): "Geuk jakin genuen beste inork baino lehen Everestera bigarren espedizioa egiteko baimena lortu zutela. Izan ere, 1978an Katmandun geundela, Felipe Uriartek Trekking Ministeriora joan behar zuen, euskal espediziorako baimenak eskatzera. Uriartek ez zuen ondo ulertzen ingelesa, Izagak bai, eta hark lagundu zion. Ministerioan honakoa esan zieten: *Mister Philip*, Errusiako taldeak bertan behera laga du espedizioa, eta euskal espedizioari utzi dio lekua. Berria jakin bezain laster, Felipe Uriarte gure hotelerara joan, eta berehala telexarekin albiste jakinarazi zuen Iberian (orduan Iberiako Donostiako bulegoari helarazten zitzaion informazioa). Hurrengo egunean bertan albiste bonba modura argitaratu zuten Espainiako komunikabide handiek", kontatu du Agustin Txurrukak.

1979ko trekkingera bai, hara kanpin dendekin joan ziren: "Gehiago ginenez, hango herri txikietan ez zuten lekurik denok bertan lo egiteko, zer esanik ez guri jaten emateko".

Eta bigarren trekking hartatik ere oroitzapen ezin hobeak ekarri zituzten. Adibidez, Mustang erresuma bisitatu zuten: "Hura erresuma independentea zen Nepalengandik; erregea eta guzti zuen. Beste datu kurioso bat: hangoa da jatorriz mustang zaldi arraza".

Thorong La Pass lepoa egin zuten, 5.416 metrora dagoena, "denok egon ginen han buruko minarekin", du gogoan Txurrukak.

Ikusi zuten gorkhen Jomson kanpalekua, Nirmal Purja mendizale eta gorkha soldadu-ohi entzutetsuari esker horren ezagun bilakatu den gorkha gerrako leinuarena, alegia: "Hangoa da Gorkha etnia. Haiek gudariak dira, baina mertzenario izaera dute. Beti joan dira gerrara Ingalaterrarekin, oso bortitzak dira. Bigarren Mundu Gerran alemaniarrek ikaratuta geratu ziren haiekin. Oso gudari famadunak dira. Pentsa, Himalaian gu oso goiz jaikitzen ginen, oraindik ilunetan, eta gu jaiki orduko, gorkhak ya gimnasia egiten zebiltzan, eta egun osoa pasatzen zuten instrukzioa egiten".

Besteak beste, Txurrukak Machapuchare mendia du gogoan bigarren trekkingetik. "Egunero ikusten genuen hura; arrainaren buztana esan nahi du izenak, arain itxura du eta".

### Betiko ondo gordeta

Himalaian izan ziren soraluzetarrek halako eta bestelako bizipen ahaztezin amaigabeak ekarri zituzten bueltan. 41 urte geroago, Agustin Txurrukak bizi-bizi ditu oroitzapen haiek. Toponimiako izen batzuk ahaztu zaizkion arren, inolaz ere ez zaizkio ahaztu eta ahaztuko Himalaiako paraje zabal eta ikusgarriak, bertako bizilagun adeitsu eta eskuzabalak, bidean egindako adiskideak eta hemendik joandakoak zein bertako xerpak. Hori bai, argi dauka berak duen Nepalgo oroitzapena gaur egun ez dela existitzen, masifikazioak eta horrek dakarren garapen bortitzak eraginda. Horrek are baliotsuago bilakatzen ditu ondo gordeta dituen oroitzapenak.

Edmund Hillaryk finantzaturako zubi esekietako bat gurutzatzen. Zeelanda Berriko mendizaleak halako azpiegitura, eskola eta bestelako asko eraikitzeko dirua eman zuen.

Nepalgo herrixka aldapatsu bat, arroz soroak inguruan dituela.







Sorako taldea iazko finalerako bat irabazi izana ospatzen.

# Soraluze, futbolari gazteen topaleku

Abenduaren 28an, zapatua, egingo dute Gabonetako Futbol Eskolako Torneoa; 400 bat futbolari elkartuko dira Ezoziko Futbol Zelaian

Futbolak duen harrobi esanguratsuaren erakusleho bilakatuko da Ezoziko futbol zelaia abenduaren 28an.

Orduantxe egingo du Sorak Gabonetako Futbol Eskolako torneo eta ehunka jokalaria erakarriko ditu egun osoko topaketara.

09:00etan hasi eta 19:00ak arte jokatu dute futboleak neska-mutikoen. Goizean, guztiek guztien kontra, sailkapen fasean. Arratsaldean, berriz, 14:30ean hasiko dira final-laurdenak: 18:00etan benjaminen finala eta 18:30ean alebinena.

## Sari banaketa bi txandatan

Sari banaketari dagokionez, aurtun berritasuna dago, izan ere, bi txandatan egingo dute: 19:00etan benjaminena eta 19:30ean alebinena. Hori bai,

ohiko moduan, irabazleek ez ezik, gainerako partaide guztiek ere eskuratuko dute garaikurra.

## Futbol zelaira joateko autobusa

Bestalde, aurtun ere izango da autobusa futbol zelaira joateko: 08:30etik 14:30ak arte ibiliko da autobus bat eta 13:00etatik 19:30ak arte, berriz, beste bat.

Autobusari dagokionez, Sorako Futbol Eskolatik gogora ekarri dute jokalariek dutela bertan ibiltzeko lehentasuna eta hori errespetatzeko eskatu diete autobusa erabiliko duten gainerako erabiltzaileei. Halaber, aldeztu aurretik barkamena eskatu nahi dute torneoan sor litezkeen eragozpenengatik "torneo hau gurasook antolatutako ekimena da, ez profesionalen antolatutakoa, beraz, pazientzia eskatu nahi dugu".

## Urtea kirola eginez bukatzeko aukera

Abenduaren 31n, 11:00etan abiatuko da bigarren urtez egingo den San Silvestre lasterketa. 4 kilometroko ibilbidea izango du kirol jardura ez leihakor horrek: Zubi Nagusian hasi, Gabolatsera joan eta kiroldegiko pasealekutik zubira bost buelta egin ondoren, Mesedeetako egoitzako plazan bukatuko da. Jokin Martinezek, antolatzaileetako batek, gonbita egin du parte hartzeko "jai-giroan eta moztarotuta, urtea kirola eginez bukatzeko". Adin guztietako herritarrei zuzenduta dago eta izen-ematearen prezioa euro batekoa izango da. Gaurtik hasita eman daiteke izena kiroldegian, eta egunean bertan, lasterketa aurretik.

## Libre patinatzen ibiltzeko aukera

Arane kiroldegiko pilotalekua helduendako patinaje pista libre bilakatuko da ostiraletan. Izan ere, patinatzea nahi duten helduek aukera izango dute hura erabiltzeko 18:45etik 20:00ak arte.

Parte hartzeko interesdunak Marras Irristaketa Taldearekin jarri beharko dira harremanetan. Hain justu, elkarte horren eskutik dator patinaje libre egiteko aukera berri hori. Gainera, norbaitek patinatze hasierako laguntza teknikoa behar izango balu, Marras Irristaketa Taldeko entrenatzaile Iraitz Ibarzabal gertu legoke laguntzeko.



Dantzariak agurra dantzatu zioten Joxe Mariri.



Joxe Mari partiduko epaileekin.

# Omenaldi hunkigarria

Zapatuan, Sorak omenaldi hunkigarria egin zion Joxe Mari Gomezi, 25 urtez futboleko epaile moduan egin duen lana aitortu asmoz.

Futbolari gaztetxoek osatu zituzten bi ilaren artetik sartu zen Joxe Mari zelaira, armailetako ikusleen txalo artean. Zelaiaren erdialdean bost dantzari eta txistularia zituen zain. Agurra dantzatu

zioten hauek eta ostean, banan banan agurtu zuten ordurako hunkitua zegoen omendua. Gero, klubeko Presidenteak eta zuzendari teknikoak esker oneko plaka bat eman zioten eta arratsaldeko

norgehiagokari hasiera eman zion ohorezko sakea ere ateratu zuen.

Azkenik, futbolariren besarkada eta txalo artean ateratu zen zelaitik eta armailetan zain zituen gaztetxoak eta senitartekoak agurtu zituen pozarren, eskuetan zuen plaka erakutsiz.

Soraluze Futbol Taldeak omenaldi horrekin aitortu eta eskertu nahi izan dio Joxe Mari Gomezi hogeita bost urteotan futboleko epaile moduan egin duen lana.

Bejondeizula Joxe Mari!

**FOGASLER**  
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soniak) - 943 71 82 49 (Ofisi)  
fogasleriturgintza@gmail.com

**Carpinteria MANU Aroztegia**

Atak  
Bontak  
Portak  
Sukaldeak  
Tokiak

Manuel Cifuentes  
Estazioa 8. barrena - Mug. 636 05 81 25

**ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA**

amurta  
dekorazioak  
industrialak

Tel. 943 75 13 24 - Mug. 652 77 70 30

**TXURITXU GOZOTEGIA**

Astelehenetik ostiralera:  
08:30-13:00 eta 16:30-22:30

Larunbata: 08:30-13:00  
Igandeak: 08:30-14:30

Gosariak, ogia,  
premsa, pastelak,  
bonbatak...  
Itxura eramaneko  
zerbitzua  
Jai zerbitzuak  
izan!

Tel. 943 75 24 43

**Almar**

**Heapsaindegia**  
**Estetika**  
**Soleriama**

Gabriel 4, Iruña - Tel.: 943 75 15 13 - 682 51 14 04

**MENDIZABAL**  
okidegia

Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelehenetik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00

Larunbata eta  
igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarran 10  
Tel.: 943 75 13 99

# Errazuren 'Black Mountain' Madrilen

Jon Errazuren margolana 'BMW pintura' sarien lehen hautaketan aukeratu zuten eta egunotan ikusgai dago Madrilen.

Jon Errazu margolariak irailean jakinarazi zuen bere 'Black Mountain' serieko margolana BMW sarietarako aukeratu zutela. Ondoren, saririk jaso ez bazuen ere, Abenduaren 2tik 29ra bitartean, Errazuren margolana ikusgai dago Madrilgo Casa de Vacas erakusketa aretoan, gainerako margolanekin batera.

Errazuk jakinarazi duenez, margolana sortu zuenean, "Soraluzeko paisaia lainotu eta idealizatu bat" zuen buruan.



Jon Errazu margolana eskutan.

## Gabonetako kontzertu berezia

Abenduaren 27an, abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko du elizan; arratsaldeko 20:00etan.

Datorren barikuan, Ezoziko Ama abesbatzak Gabonetako kantuz osatutako kontzertu "berezia" eskainiko du elizan. Berezia, aurreko urteetan ez bezala kontzertuko errepertorioa gabon kantez osatua izango delako eta kontzertuaren lehen atalean kanta latinoamerikarrak kantatuko dituztelako, "erritmo handia dutenak", Aitor Garitano zuzendariaren esanetan, "Calipso eta beste batzuk".

Kontzertuaren bigarren atalean, euskal gabon kanta tradizionalak kantatuko dituzte, "Aragües konposatzailearen gabon suitea". Besteak beste, ondorengo kantu ezagunak: Oi Betlehem, Haur eder baten bila, Horra Mari Domingi, Hator hator...

### Pianista lagun

Kontzertuan Leire Ugarte Bergarako pianistak ere parte hartuko du.

## 'Pareketan' Memory feminista

Kukumixo Asialdi Taldeak Pareketan izeneko memori jolasa prestatu du 36 emakume ezagunen ilustrazio eta datuekin, abenduaren 24an opari moduan banatzeko. Horien artean daude: Maialen Lujanbio bertsolaria, Nahikari Garcia futbol jokalaria, Zuriñe Hidalgo abeslaria, Ixa Rodriguez boxeolaria, Elvira Zipitria irakaslea, Pirritx pailazoa... Jolasaren helburua da gaztetxoaren artean hainbat arlotan nabarmendu diren emakumezkoak ezagutaraztea.

### Txabola morea

Urtero moduan, udaleko brigadako langileen laguntzarekin, Kukumixo Asialdi Taldeak eta Tere Guenetxeak Olentzero eta Mari Domingiren etxola muntatu du, feminismoa eta parekidetasuna motibotzat hartuta. Hargatik, more koloreko potzua jarri dute, zapi morea jarri diete bie eta Olentzero jertse morea josten ipini dute.



Ilustrazioak Eñaut Aiertzaguenak egin ditu.



# Martin Bernedo Prado

ELGOIBARTIK SORALUZERA



Martin Bernedo Prado mutilen jantziak erakusten.



KLB6 saltoki aurrean.

Martin Bernedo Prado (Elgoibar, 1973) 2008tik bizi da Soraluzen, eta 2020ko martxoaren 15ean bosgarren urteurrena beteko du familiakoa duen KLB6 jantzi-dendak.

## **Bost urte dendari; zer moduz?**

Ondo, arreba daukat laguntzaile eta irakasle... Berak orain dela 22 urte zabaldu zuen denda Elgoibarren. Orain hiru denda ditugu: Elgoibarren, Soraluzen eta Elorrión.

## **Arrebak gidatzen zaitu moda kontutan?**

Nesken arropatan bai, mutilenetan neu nabil. Izan ere, Soraluzen esperientzia berri modura ipini nuen mutilendako arropa; orain Elorrión ere badugu mutilendakoa.

## **Eta zure esperientzia, zela?**

Orain ondo. Hasieran nahiko galduta. Pentsa, 15 urtean garraiolaria izatetik dendari izatera pasatu nintzen. Ogibide

guztiak bezala, ikasi egiten da eta orain gustura nabil.

## **Zaila da Soraluzen dendari izatea?**

Niretzat ez. Ondo doa eta. Bezeroak nahiko fidelak dira, eta dugun arropa gustuko dute. Azken batean 20 marka inguru ditugu dendan; jantziak, oinetakoak eta osagarriak, denetik dugu.

## **Zelako bezeroak dira hemengoak?**

Oso jatorrak. Bezeroen %80 dira Soraluzekoak. Kanpotarren artean, berriz, irakasleren bat zein beste etortzen da, masajistarengana etorri den lagun bat edo beste, Eibarko eta Elgoibarko nire lagunak...

## **Zelako jantziak dituzte gustuko soraluzetarrek?**

Ohikoak, klasikoak. Bestalde, gure sare sozialetan (Instagram eta Facebook) asko mugitzen da jendea. Izan ere, denda fisikoaz aparte, gaur egun Interneten ere egon behar duzu, bestela... Jendea gero eta erosoagoa da,

batez ere, gazteak. Hala ere, denda fisikoa ere beharrezkoa da. Ez da gauza bera jantzi bat probatu barik edo probatuta erostea. Eta herriari bizitza handia ematen diogu, noski. **Elgoibartik etorrira, zela bizi zara hemen?**

Oso ondo. Jendea oso jatorra da eta oso erraza da udalerrira egokitzea. Soraluzen ez da kuadrillarik izan behar kalera irteteko, Elgoibarren moduan. Hemen kalera irteten zara eta beti dago norbait. Elgoibarren desberdina da, taberna zehatz batera joaten da jendea kuadrillak, eta ez dira mugitzen. Han ez dago hemengo txikiteo hori.

## **Zer gehituko zenioke herriari?**

Saltoki txiki gehiago. Mugikarren denda bat, kirol denda bat... saltoki txikiek ematen dute bizitza eta argia kaleetan. Taberna nahikoa daude (barre).

# Iloben dokumentala

GERRARENGANDIK IHESI BALMASEDARA JOAN ZEN FAMILIAREN HISTORIA

**TESTUA** ETA ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO

Gaizka Azkaratek, Martin eta Jon anaien eta Ekaitz Uzin lehengusuaren laguntzaz, ‘Bueltan’ izeneko dokumentala ekoitzi du, gerra hasi zenean zazpi urte besterik ez zituen Ana Mari Argarateren (Soraluze, 1929), euren amonaren, testigantzetan oinarrituta. Testigantza horiek osatzeko, Soraluzen eta Balmasedan gerraren gaineko historia landu duten taldeetako bi kideren azalpenak ere jaso ditu: Ana Maiztegirenak eta Zunbeltz Matabuenarenak.

## “Beltzen” beldur

Ordubete inguruko dokumentalean, Ana Mari Argaratek kontatzen du nola 1936ko udan, Soraluzera gerrako frentea hurreratzen ari zela, ama eta bost seme-alabek osatzen zuten familiak erabaki zuen herritik ihes egitea, Bizkaiko Balmaseda herrian babestuz. “Tropa nazionalak gero eta hurbilago zeuden eta herrian beldur handia zabaldu zen, batez ere, soldadu beltzenganako beldurra. Horregatik erabaki zuten ihes egitea, herriko beste hainbat eta hainbat familiak erabaki zuten bezala, Bizkai aldera”, zehaztu du Gaizkak.

**Balmasedatik bueltan, etxea hutsik**



Ana Mari Argarate inguruan loibak dituela: Ekaitz, Martin, Jon eta Gaizka.

Balmasedan egin zuten egonaldian, Ana Marik eta bere familiak bertatik bertara ezagutu zuten gerra: bonbardaketak, tiroketak, babeslekuak. Ia urtebete egin zuten bertan, harik eta 1937ko ekainean, ordurako gerra galduta zegoenaren jakitun, Soraluzera bueltatzea erabaki zuten arte. Etxera heldu zirenean, ordea, etxea hutsik topatu zuten, auzokideek eroan zizkietelako altzari eta gainerako ondasun guztiak. Hala ere, ondorengo

hilabeteetan, beste auzokide batzuen laguntzaz, lortu zuten haietako batzuk errekuuperatzea.

Gerra osteko urte gogorak etorri ziren gero: auzokideen salaketak, errepresioa, behartutako soldadutza, euskaraz berba egiteko debekua... Gai horien eta beste hainbaten inguruan dihardu Ana Marik ikusentzunezkoan, garai hartan zazpi urte zituen neskatiaren xalotasuna eta gaur egunean 90 urte dituen amamaren zorrozatasuna uztartuz.

**BERTATIK BERTARA  
EZAGUTU ZUTEN  
GERRA:  
BONBARDAKETAK,  
TIROKETAK...**

## Proiektzioa

Urtarrilak 3, barikua  
19:00etan, Antzokian  
Iraupena: 50 min.

# “Urte askoan gerraren gaia tabua izan da”

**GAIZKA AZKARATE** ZUZENDARIA

## Noiz sortu zitzaizun amamaren historiarenganako jakinmina?

Amamarekin harreman estua izan dut beti eta sarri kontatu izan dizkit gerra garaiko kontuak, orain arte beste inori kontatu ez dizkionak, urte guztiotan gerraren gaia tabua izan delako. Gehiago galdetzen hasi nintzen, anaiak (Martinek) elkarriketa batzuk egin zizkion eta pentsatu nuen merezi zuela dokumental batean jasotzea.

## Zergatik dokumentala?

Egin genezakeen geuretako bideo bat, baina interesgarriago iruditu zitzaigun amamaren historia jendeari kontatzea, azken batean, beste emakume eta familia askok bizi izan zuten historia bera delako eta beharbada beste askok ez dutelako kontatu ahal izan edo ez dutelako kontatu nahi.

## Zergatik iruditzen zaizu garrantzitsua hori kontatzea?

Garrantzitsua da jakitea norbere familian zer gertatu zen, ahal den neurrian historia hori hurrengo belaunaldiari jakinarazteko eta transmititzeko, zeren kontakizun hauek ez daude historiako liburuetan.

Amamak zazpi urte zituen baina harrigarria da zenbat gertaera eta detailerekin akordatzan den. Hori bai, gertaera asko umorez kontatzen ditu, seguruenik gazetetasun horren eraginez. Horregatik jaso ditugu datu historikoak ere, kontakizun hori osatzeko.



Gaizka Azkarate.

## Balmasedara ere joan zarete?

Bai, amamarekin joan ginen. Amama Balmasedara bueltatu barik zegoen laurogei urtean eta oso momentu berezia izan zen. Gainera, gerra garaian familia egon zen etxean ere izan ginen.

## Bertako memoria historikoko lan taldekoekin ere bildu zarete.

Bai, Soraluzekoekin eta Balmasedakoekin. Amamaren testigantzari testuinguru bat eman nahi genion eta asko lagundu digute. Balmasedan ere oso ondo hartu gintuzten eta bertan izan ziren plazentziatar guztien zerrenda ere eman ziguten.

“GURE AMAMARENA  
EMAKUME ETA FAMILIA  
ASKOK BIZI IZAN ZUTEN  
HISTORIA BERA DA”

## Lana Ana Mariren lau loiben artean osatu duzue.

Bai. Dokumentala nik zuzendu dut, baina elkarriketak Martinek egin ditu. Jonek eta Ekaitzek ere lagundu didate, testuekin eta irudiekin.

Guretzat munduko dokumentalik garrantzitsuena da, noski, gure amamaren testigantzak direlako, baina uste dut gainerako publikoarendako ere interesgarria izan daitekeela.

## Zein publiko espero duzu proiektzioan?

Urtarrilaren 3an Soraluzen proiektatuko dugu eta aurrerago Balmasedan ere bai. Uste dut, batez ere, adineko jendea etorriko dela, kontatzen diren antzeko egoerak bizi izan dituztelako, baina espero dut gazteak ere etortzea, egileok ere gazteak garelako. Ikusten duenari gogoetatxo bat eragiten badio, ni horrekin konforme.



ZORION AGURRAK



**Jon Amutxastegi**  
Abenduaren 18an, 9 urte. Zorionak eta muxu haundi bat! Danon partez!



**Enrike Txurruka**  
Azaroaren 17an, 46 urte. Sekula ez da berandu zoriontzeko! Aupa, Enri! Kuadrillia.



**Aetz eta aittitta Aitor**  
Abenduaren 19an, 5 urte, eta 24an 65. Zorionak bikote!!! Asko maitte zaittuztegu! Etxekuen partez!



**Lander Rz de Luzuriaga Lamas**  
Abenduaren 13an, 15 urte. Zorionak maitea! Berehala pasatu dira 15 urte. Segi horrela! Maite.

HILDAKO ETA JAIOTAKOAK

**Hildakoak**  
Jose Luis Etxabe Udabe  
**Jaiotakoak**  
Julen Muñoz Iñurrieta

ESKELAK

I. URTEURRENA

Venancio Iñurrieta Goikoetxea

2018ko abenduaren 18an hil zen

Orain arte joan zara bidean gurekin, aurretik argi eginez zure urratsekin. Guri utzi diguzun

oroimen horrekin, bidea egingo dugu argi berarekin aurki bildu artean denok elkarrekin.

Urteurreneko meza abenduaren 28an izango da, 19:00etan, Santa Maria la Real parrokian

Familiaren partez

II. URTEURRENA

Guillermo Alberdi Aramendi

2017ko abenduaren 11an hil zen

Izar berri bat piztu da Euskal Herriko zeruan. Beti gure bihotzean.

Etxekoak

V. URTEURRENA

Jose Luis Ariznabarreta Aizpiri


2014ko abenduaren 18an hil zen

Denbora menderaezina da, samina baretzen dakiena. Ahanztura ez da inoiz izango gure maitasuna itzaliko duena.

Etxekoak

30 PIL-PILEAN

## JAI OBERRIAK

**Renad Atton**

Azaroaren 15ean jaio zen

**Julen Muñoz Iñurrieta**

Abenduaren 6an jaio zen.

**IZAGUIRRE**  
Igeltzeritza

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza  
Erreformak • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 289

**ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika, punta-puntako teknologikoki lan egiten dugu. Cat-Cam sistema berrikia erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea  
SORALLUZE  
Tel: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe3@gmail.com

Ordutegia:  
Asteleheneretik ostiralera  
9:00 - 11:00 eta 14:00 - 20:00

**Txoko**

Eguneko menua,  
plater konbinatuak,  
hamburgerak,  
egitarbekoak,  
rakiak,  
pizkak,  
gotaria...

Erakargarriak egiten dira  
Tel. 943 75 17 89

**KLB6**

Kalebarran 6  
943 57 21 26  
Mutter-utzi modan  
moda guztia

Pepe Jeans  
MILANO  
MILANO SCOOTER  
VERO MODA

**MABEL**  
ILKAPAINDEGIA

- Berrantzikio keratina tratamendua
- Depilazioa
- Re-sustrainik gabeko permanentes
- Makilajea
- Manikura
- Entseirakuntza
- Solariuma

Errabai 1  
Tel.: 943 75 14 89

**Hortz klinika**

Errabai 1  
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso  
Mediku Estomatologoa  
K.Z. 48.000.591

Katia Gustinne  
Odontologoa  
K.Z. 48.001.541

27 urteko esperientzia  
odontologiako, profilak,  
odontopediatría, ortodontia,  
implanteak, estetika...

Zerbitzu radiologiko orokorra (XDR):  
entzama, orto eta tele.

Jatearen plazarena, bertatik bertara

**Batzoki**  
JATEA

eguneko menua  
antzerkietan  
kama eta arrozak

egunetakoak eta  
hamburgerak  
entzama bereziki

famila eta  
lagun arteko  
hazkuntza

Donostia, 943 75 20 55

**Kontulan**  
abokatuak

Errenta, satorpenak • Administrazioa lanak  
Trafikuko buntzarria • Lan-arloko aholkularitza  
Enpresen kontabilitate/finantziak • Kontabilitates

Santa Ana 13 • 1. eak. 20590 Sorribas  
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 61 82

**TXURRUKA**  
JATETXEA

Sukalde  
tradizionala

Eguneko menua  
Asteleburuetako  
menu berezia  
Karta

www.txurruka.com  
Tel.: 943 75 15 81

Euskalzaletasunaren alde:



# BUELTAN

Gerra zibileko haur errefuxiatu baten memoriak

Dokumentalaren aurkezpena: Urtarrilak 3, 19:00-etan, Soraluzeke Herri Antzokian  
(Bi hizkuntzatan - Bilingual)

Balmaseda



SORALUZEKO  
UDALA

Soraluze

INTERIORISTA  
AINHOA LETE

ERREFORMAK

ZANGITU

BARNE  
DISEINUA

- Zure beharretara egokitutako distribuzioak
- Etxebizitza eta lokal komertzialen proiektuak, aurrekontuak eta obra
- Koloreak, teksturak, tarimak, azulejoak, oiholak...  
Material egokienak aukeratzen lagunduko dizugu

Telesforo Aranzadi 2 · Bergara

zangitu barne diseinua

ainhoalete@yahoo.com

635 731 268 · 943 760 869